

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	HARRI NATURALEKO ELEMENTUEN DISEINUAREN IRUDIKAPEN GRAFIKOA	Iraupena	30
		Baldintzatua	
Kodea	UF0743		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Harri naturala		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Harri naturaleko proiektuen diseinua eta koordinazioa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Harri naturaleko elementuen eta multzoen diseinua	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Harri naturaleko proiektuen interpretazioa (zeharkakoa)	Iraupena	60
	Harri naturaleko elementuen eta multzoen proposamena		50

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0865_3 HARRI NATURALEKO ELEMENTUAK ETA MULTZOAK DISEINATZEA gaitasun-ataleko LB3 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Irudikapenari buruzko sistemak, hitzarmenak eta araudia aplikatzea zirriborro eta krokisetan definitutako harri naturaleko elementuetarako eta multzoetarako erabaki den konponbide teknikoa garatzeko.

E1.1 Definitutako harri naturaleko multzoa sistema diedrikoan, kotatutan eta definituan irudikatzea.

E1.2 Multzo-planoak egitea perspektiba axonometrikoan, konikoan eta Cavaliere perspektiban.

E1.3 Sekzioak, ebakidurak, hausturak eta multzoaren osagaiak eta horien arteko harremanak definitzeko behar diren xehetasunak egitea.

E1.4 Elementuak eta multzoak 3Dn irudikatzea, aplikazio informatikoen bitartez.

E1.5 Zati-planoak egitea elementu bakoitza fabrikatzeko eta jartzeko beharrezkoak diren espezifikazio tekniko eta guzti.

E1.6 Elementuen eta osagaien zerrenda egitea, bakoitzaren ezaugarriak (forma, neurriak, itxura, mekanizazioak) eta identifikazio-kodeak zehaztuta.

E1.7 Elementu guztiak eta multzoa bat datozela egiaztatzea.

E1.8 Proiektuaren dokumentazio teknikoa lantzea eta harri naturaleko elementuak gerora fabrikatzeko eta jartzeko beharrezkoa den informazio garrantzitsua (material-motak, akaberak, kalitateak, jartzeko sistemak eta bestelako ezaugarriak) eta plano guztiak biltzea.

Edukiak:

1. Irudikapen grafiko harri naturaleko produktuen diseinuan eta garapenean aplikatuta.

- Multzo-planoak, zati-planoak, fabrikazioa eta muntaketa.
- Planoak egitea. Irudikapena. Teknikak erabiltzea.
- Piezen eta materialen zerrenda. Kalkulu-orriak. Piezak eta osagaiak: identifikazioa, izena, kode-esleipenak eta erreferentziak.
- Normalizazioa eta sinbologia.
- Fabrikaziorako aplikazioak.
- Jartze-lanetarako aplikazioak. Jartzeko sistemak, ainguraketa-puntuak, elkarguneak: irudikapena.
- Kronogramak.

2. Ordenagailuz lagundutako diseinu-sistemaren aplikazioa harri naturaleko produktuen irudikapenean.

- Sistema eta elementuak. Funtzioak eta aukerak. Sistema horren errentagarritasuna eta interesa.
- Dauden produktuen aldaketak eta bertsioak.
- Bi dimentsioko eta hiru dimentsioko adierazpen grafikoak ordenagailuz lagundutako diseinuaren bitartez. Lantzea. Programaren erabilera.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.

- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0741 Harri naturaleko proiektuen interpretazioa.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Harri naturaleko proiektuen diseinua eta koordinazioa.